



INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKAKO SAILBURUA

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak, 2015eko urriaren 8an egindako bilkuran, alboan adierazten diren kideak bertan zeudela, zure **kontsulta** (erregistro zk.:115/2015) aztertu du, Euskal Autonomia Erkidegoko **Portuen eta Itsas garraioaren Lege-aurreproiektuari buruzkoa** (Erref.: DNCG_LEY_6924/2013_09).

Eztabaidatu ondoren, irizpen hau eman du. Zorrozu Aierbe kideak adierazi du batzordearen iritzia.

PRESIDENTEA:

Sabino Torre Díez jauna

PRESIDENTEORDEA

Xabier Unanue Ortega jauna

KIDEAK:

M^a Teresa Astigarraga Goenaga andrea
Luis M^a Eskubi Juaristi jauna
Iñaki Beitia Ruiz de Arbulo jauna
Fátima Saiz Ruiz de Loizaga andrea
Gorka Erlantz Zorrozu Aierbe jauna
Imanol Zubizarreta Arteché jauna
Iñaki Calonge Crespo jauna jauna

IDAZKARIA

Jesús M^a Alonso Quilchano jauna

Nº 137/2015 IRIZPENA

AURREKARIAK

1. Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2015eko uztailaren 8ko Aginduaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen eta Itsas Garraioaren Lege-aurreproiektua aurkezten zaio Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari, irizpena eman dezan.
2. Sailburuaren beraren uztailaren 24ko Aginduaren bitartez (uztailaren 27an jaso zen batzorde honetan), espedientearen dokumentuei buruzko informazioa osatzen da.
3. Espedientearen proiektuaren behin betiko testuarekin batera, agiri garrantzitsu hauek daude:
 - Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren agindua, 2013ko uztailaren 31koa, araua egiteko espedientearen hasten duena.
 - Proiektuaren lehenengo bertsioa.



- Proiektuaren aurretiazko onarpena, sailburuak 2014ko uztailaren 2an emandako aginduaren bitartez.
- Genero-eraginari buruzko txostena, 2014ko uztailaren 24koa.
- Proiektua justifikatzeko txostena, uztailaren 28koa.
- Proiektuari buruzko txosten juridikoa, 2014ko urriaren 7koa, sail eskatzailearen aholkularitza juridikoak egindakoa.
- Egin nahi den arauari buruzko txosten ekonomikoa, 2014ko urriaren 15koa.
- Garraio sailburuordearen ebazpena, 2014ko urriaren 20koa, aurreproiektua jendaurrean jartzen duena.
- Osasun Sailaren, Lehendakaritzaren eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren idazkiak, proiektuari oharrik ez diotela egingo jakinarazten dutenak.
- Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, 2014ko urriaren 24koa.
- Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren antolamendu-txostena, 2014ko urriaren 27koa.
- Herri Administrazio eta Justizia Sailaren aholkularitza juridikoaren txostena, 2014ko urriaren 28koa.
- Bilboko Itsas Kapitaintzaren txostena, 2014ko urriaren 29koa.
- EMAKUNDEren txostena, azaroaren 4koa.
- Eusko Jaurlaritzako LAB sindikatuaren oharren idazkia.
- Euskal Herriko Itsas Foroa.
- Asociación de Transportistas Autónomos Vascos (ASOTRAVA) elkartea.
- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren txostena.
- Gipuzkoako Portuetako Lurralde Zerbitzuko langileen alegazioak.
- Bermeo, Mutriku, Getaria, Deba, Ondarroa, Plentzia eta Ea udalerrietako udalen idazkiak.



- ELA sindikatuaren alegazioak.
- Bilboko Portuko Agintaritzaren idazkia.
- Lehiaren Euskal Agintaritzaren alegazioak.
- Garraio Azpiegituraren Zuzendaritzaren langileen idazkia.
- Euskal Herriko Bide, Kanal eta Portuetako Ingeniarien Elkargo Ofizialaren proposamena.
- Euskadiko Arrain Salerosleen Federazioaren (FECOPE) idazkia.
- EUDELen alegazioak.
- Euskadiko Kirol Portuak-en (EKP) alegazioak.
- UGT-Euskadiren alegazioak.
- MARBECO Saren alegazioak.
- Herri Administrazio eta Justizia Sailaren Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren txostena, 2015eko urtarrilaren 26koa.
- Zerga Administrazioaren Zuzendaritzaren txostena, 2015eko otsailaren 12koa.
- Ondare Zerbitzuaren txostena, 2015eko otsailaren 23koa.
- Administrazio Kontratazioaren Aholku Batzordearen txostena, otsailaren 25koa.
- Aurreproiektuaren testu artikulatu berria.
- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen 8/15 irizpena, 2015eko maiatzaren 29koa.
- Garraio Azpiegituren Zuzendaritzaren amaierako txostena, uztailaren 14koa.
- Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena, 2015eko uztailaren 17koa.
- Portu eta Itsas Gaietako Organo Aholkulariaren bileraren akta, 2014ko irailaren 18koa.



AURREPROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

4. Lege-aurreproiektuak berrogeita bost artikulua dauzka, sei kapitulutan, sei xedapen gehigarritan, bost xedapen iragankorretan eta hiru azken xedapenetan bilduta.
5. Zioen Azalpenean aipatzen da Euskadik itsasoarekin izan duen lotura historikoa, ekonomikoa eta soziala, eta arrantzako itsas sektorearen garrantzia ekonomikoa azpimarratzen du; azken horri, oraintsu, kiroletako itsas jardueri buruzkoa gehitu zaio.
6. Zioen Azalpenak Euskal Autonomia Erkidegoak (EAE) arlo horretan dauzkan eskumenak aipatzen ditu, eta Eusko Legebiltzarrak orain arte ez duela esku hartu EAEko portuetako jarduerak arautzeko. Proiektuak huts hori bete nahi du.
7. Jarraian, proiektuaren edukia azaltzen du, kapituluka.
8. I. kapitulua “Xedapen orokorrak” 1. artikulutik 8. artikulura bitartekoa da.
9. 1. artikulua legearen xedea azaltzen du, hain zuzen ere: portuei eta portu eta itsas instalazioei aplikagarria zaien araubide juridikoa ezartzea; portuak planifikatzeko, antolatzeke, ustiatzeko, eraikitzeke, handitzeke, eraberritzeke eta mantentzeko araubideak ezartzea, baita portuko zerbitzuak eskaintzea ere; portuko jabari publikoaren kudeaketa arautzea; portuko administrazioaren egitura eta funtzionamendua; portuen erabileraren eta portuko zerbitzuen ekonomia- eta finantza-araubidea; itsas garraioa arautzea; portuen eta itsas garraioaren arloko zehapen-araubidea ezartzea.
10. 2. artikulua portuen arloan Euskal Autonomia Erkidegoak duen eskumenaren eremu objektiboa arautzen du.
11. 3. artikuluan kontzeptu hauek definitzen dira: portuak, portuetako trafikoa, kostaldeko portuko obra eta instalazioak, itsas instalazioak itsasoko eragiketak eta portuko administrazioa.
12. 4. artikulua ezartzen du portuen arloan erakundeek eta gizarteak parte hartuko dutela araubidez sortuko diren organo aholku-emaitzen eta parte-hartzaileen organoen bidez, esaterako, Portuko Udal Kontseilua.
13. 5. artikulua ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrari eskumen hauek dagozkiola: xedapen orokorrak onestea; portu bakoitzaren kudeatzeko modua zehaztea; portu-antolamendurako plan bereziak onestea, eta,



azkenik, zehatzeko ahala baliatzea KAIKAK zuzenbide pribatuko erakunde publikoarekin batera.

14. 6. artikuluan arautzen dira Euskadiko portuak kudeatzeko printzipioak.
15. 7. artikulua ezartzen du EAEko portuetako jabari publikoa osatzen dutela titulartasun publikoko eskubide eta ondasunek (higiezinak eta higigarriak), erabilera orokorrari edo portuko zerbitzu publikoari atxikitakoek.
16. 8. artikuluan portuetako zerbitzugunea arautzen da. Gune horretan honako hauek sartzen dira: portuko jarduerak eta portu-erabilerak gauzatu ahal izateko beharrezko lur- eta ur-espazioak, jarduera osagarrietarako beharrezkoak direnak, eta portuko jarduerak eta bestelako jarduera osagarriak garatzeko aukera ziurtatzen duten erreserbako espazioak. Portuko administrazioak mugatzen ditu zerbitzugune eta erabilera horiek.
17. II. kapitulua, “portuen plangintza, antolamendua, eraikuntza eta mantenua”, lau ataletan banatzen da.
18. Lehenengo atala, “Portuko hirigintza-plangintza eta -antolamendua”, 9. artikulutik 11. artikulura bitartekoa da.
19. 9. artikulua ezartzen du portu eta portuko instalazio berrien eraikuntza eta daudenen handiagotzea portuetako azpiegituren planifikazio-tresnek ezarritakoaren arabera egingo direla.
20. 10. artikulua ezartzen du hirigintzako plangintza orokorrak portuetako jabari publikoaren eremu osoa portuko sistema orokor gisa kalifikatuko duela eta, portuei eragiten dieten hirigintza-antolamenduko tresnak idaztean, portuko Administrazioari iritzia eskatuko zaiola.
21. 11. artikulua ezartzen du portuetako eremuen hirigintza-antolamendua portu-antolamendurako plan berezien bidez egingo dela.
22. 2. atalak, “portuko espazio eta erabileren mugaketa”, 12. eta 13. artikulua dauzka.
23. 12. artikulua, “portuko espazio eta erabileren mugaketa”, agiria arautzen du, portuetako zerbitzuguneko erabilerak eta instalazioei buruzkoa.
24. 13. artikulua portuko espazio eta erabileren mugaketaren izapidetzea eta ondorioak arautzen ditu.
25. 3. atala, “Portuak egitea eta berritzea”, 14. artikulutik 16. artikulura artekoa da.



26. 14. artikulua ezartzen du portuak eraiki, handitu, eraberritu eta mantentzeko Portu Antolamenduaren Plan Bereziaren arabera egin beharko dela, sektore publikoko kontratuen legeek xedatzen dutenarekin bat.
27. 15. artikulua ezartzen du portuko Administrazioak zerbitzugunean burutzen dituen obrek ez dutela hirigintzako lizentziarik jaso edo udal-tributurik ordaindu beharko.
28. 16. artikulua ezartzen du atal honetan adierazitako proiektua onartzeak berarekin dakarrela aitortzea onura publikokoa dela, eta eskubideak eskuratu eta ondasunak okupatzeko beharra, desjabetzeari eta emakidak berreskuratzeari dagokienez.
29. 4. atala, "Portuko jabari publikoa zaintzeko araubidea", 17. artikulutik 20. artikulura bitartekoa da.
30. 17. artikuluan hondakinak biltzeko planek bete beharreko baldintzak arautzen dira, ingurumena babesteko.
31. 18. artikulua itsasontzietako isurketa edo igorpen kutsagarriak egiteko debekua arautzen du. Isurketak hondakin-bilketako planekin bat egin beharko dira, eta baimena eskatu beharko da lehorretik uretara isurketak egiteko.
32. 19. artikuluan prebentzio eta babes zibileko betebeharrak arautzen dira.
33. 20. artikulua ezartzen du portuko Administrazioaren baimena beharko dela dragatze-lanak egiteko, arauetan aurrez ikusitako beste baimen batzuez gain.
34. III. kapitula "KAIK erakunde publikoa", 21. artikulutik 28. artikulura bitartekoa da.
35. 21. artikulua bidez KAIK sortzen da, nortasun juridiko propioa duen zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa, portuen arloko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikita.
36. 22. artikulua KAIK-en xedea arautzen du, hau da, EAEko eskumeneko portuak kudeatzea, portuetako azpiegiturak eraikitzea eta zaintzea eta portuetako zerbitzuak ematea.
37. 23. artikulua KAIK-en eginkizunak arautzen ditu.
38. 24. artikuluan erakunde publikoaren jardunaren araubide juridikoa arautzen da, eta zehazten da zein jarduketa dauden administrazio-zuzenbidearen menpean; horretaz gain, aurkez daitezkeen errekursoen berri ematen du.



39. 25. artikulua KAIAKen antolakuntzari buruzkoa da; gobernu-organoa Administrazio Kontseilua da, eta kudeaketa-organoa, ordea, Zuzendaritza.
40. 26. artikuluan ezartzen da zein lanpostu beteko dituzten funtzionarioek, eta zein lan-kontratuko langileek.
41. 27. artikuluan arautzen dira erakundeak bere xedeak betetzeko izango dituen baliabide ekonomikoak.
42. 28. artikulua ezartzen du KAIAK erakundeak aurrekontuaren aurreproiektua urtero-urtero egin eta onetsi beharko duela. Horren ondoren, Eusko Jaurlaritzan aurkeztu beharko du, Gobernuak onesten duen aurrekontuen proiektuan sartzeko.
43. IV. kapitulua, “Euskadiko portuen araubide juridikoa”, 29. artikulutik 42. artikulura bitartekoa da, eta bi ataletan banatuta dago.
44. 1. atala, “portu-zerbitzuak”, 29. artikulutik 31. artikulura bitartekoa da.
45. 29. artikulua portu-zerbitzuaren kontzeptua arautzen du.
46. 30. artikulua portu-zerbitzuak zein diren arautzen du.
47. 31. artikulua xedatzen du portu-zerbitzuak portuko Administrazioak emango dituela, zuzenean edo zeharka, edo bestela, beren-beregi baimendutako partikularrek emango dituzte zerbitzuok eskumen araubidean.
48. 32. artikulua xedatzen du zerbitzugunea portuko trafikorako eta trafiko horren jarduera osagarrietarako erabili beharko dela.
49. 2. atala, “Portuko jabari publikoaren kudeaketa”, 33. artikulutik 42. artikulura bitartekoa da.
50. 33. artikulua portuko jabari publikoaren erabilera, oro har, arautzen du.
51. 34. artikuluan baimena edo emakida zein kasutan behar den arautzen da.
52. 35. artikuluan baimen eta emakiden izapidetzea arautzen da.
53. 36. artikuluan baimenak eta emakidak zein kasutan amaitzen diren arautzen da.
54. 37. artikuluan baimenak eta emakidak zein kasutan ezeztatzen diren arautzen da.
55. 38. artikuluan baimenak eta emakidak zein kasutan iraungitzen diren arautzen da.



56. 39. artikuluan emakiden gaineko xedapen-egintzak edo kargak ezartzen dituzten egintzak arautzen dira.
57. 40. artikulua emakidak aldatu eta berrikusteari buruzkoa da.
58. 41. artikulua emakiden erreskateari buruzkoa da.
59. 42. artikulua baimenak emateko prozedurari eta baimenen araubide juridikoari buruzkoa da.
60. V. kapituluan, “Itsas garraioko enpresa operadoreen erregistroa”, artikulua bakarra dago, 43. artikulua, Itsas Garraioko Enpresa Operadoreen Erregistroa sortzen duena. Enpresek EAEko eskumeneko itsas garraioko zerbitzuak eman ahal izateko, alde aurretik zerbitzuaren ezaugarriak inskribatu beharko dituzte.
61. VI. kapituluan “Polizia araubidea eta zehatzeko araubidea”, atal bi daude.
62. 1. atala, “Polizia-araubidea”, 44. artikulutik 46. artikulura bitartekoa da.
63. 44. artikulua xedatzen du portuko Administrazioari atxikita dauden langileek egingo dituztela portu eta itsas gaietako ikuskapen- eta kontrol-ahalak; langile horiek agintaritzako agenteak izango dira eta beraiek egiaztatzen dituzten egitateek frogabalia izango dute.
64. 45. artikuluan arautzen dira portuko agintaritzak egin ditzakeen jarduerak portuko jardueren ohiko funtzionamendua bermatzeko.
65. 46. artikuluan arautzen dira portuko jabari publikoko ondasunen jabetza berreskuratzeko baldintzak eta etxegabetze-ahalarenak.
66. 2. atala, “Zehapen-araubidea”, 47. artikulutik 55. artikulura bitartekoa da.
67. 47. artikulua arau-hauste motak definitzen ditu eta sailkatzen ditu arau-hauste arin, larri eta oso larrietan.
68. 48. artikuluan arau-hauste arinak zerrendatzen dira.
69. 49. artikuluan arau-hauste larriak zerrendatzen dira.
70. 50. artikuluan arau-hauste oso larriak zerrendatzen dira.
71. 51. artikuluan zehapenak zehazten dira: arau-hauste arinak: gehienez 12.000 euro; arau-hauste larriak: 12.001 eta 500.000 euro bitartean; arau-hauste oso larriak: 500.001 eta



1.000.000 euro bitartean. Artikulu berean zehapen ekonomikoak graduatu egiten dira, eta adierazten da zehapenak ezartzea bateragarria izango dela aldatutako egoera konpontzeko eskakizunarekin.

72. 52. artikulua xedatzen du KAIK erakundeko zuzendari dagokiola arau-hauste arin eta larrien gaineko zehapenak jartzea, eta erakundea atxikita dagoen saileko sailburuari arau-hauste larrien gainekoa.
73. 53. artikulua ezartzen du arau-hausteen erantzuleak haien egileak direla.
74. 54. artikulua zehatzeko ahala duen organo eskudunak har ditzakeen kautelazko neurriak arautzen ditu.
75. 55. artikulua ezartzen du arau-hausleei hertsatze-isunak ipini ahal izango zaizkiela, eragindako kalteak konpontzera behartzeko.
76. Lehenengo xedapen gehigarrian arautzen da Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrean lanean diharduten langileak, lan-kontratuko langileak nahiz funtzionarioak, KAIK erakundeari atxikita geratuko direla, erakundearen menpean geldituko diren lanpostuetan.
77. Bigarren xedapen gehigarrian arautzen da Gobernuari dagokiola diru-zehapenen zenbatekoak eguneratzea urteko kontsumo-prezioen indizearen arabera.
78. Hirugarren xedapen gehigarrian KAIK en jarduereen hasiera arautzen da.
79. Lehenengo xedapen iragankorrak ezartzen du lege hau indarrean sartzean izapidetzen ari diren portuko plan bereziek ere bete beharko dutela lege honetan esaten dena.
80. Bigarren xedapen iragankorrak ezartzen du lege hau indarrean sartzean portuko jabari publikoa erabiltzeko eta okupatzeko gaitzen duten tituluei buruz izapidetzen ari diren espedienteetan ere bete beharko dela lege honetan esaten dena.
81. Hirugarren xedapen iragankorrak ezartzen du lege hau indarrean sartzean denean indarrean dauden baimenek eta emakidek eutsi egingo dietela dagokion tituluan ezarritako epeari eta baldintzei; salbuespen bakarra haiei ezarri beharreko zerga-araubidea izango da, araubide horrek lege honetan ezarritakoa bete beharko baitu.
82. Laugarren xedapen iragankorrak ezartzen du lege hau indarrean jartzean denean portuko zerbitzuneetan dauden bizitegi-erabilerak finkatutzat joko direla.



83. Bosgarren xedapen iragankorrak ezartzen du portu-jabari publikoko lursailak okupatzeagatik tasak ordaintzetik salbuetsita dauden erakunde eta industriek salbuespen horri eutsiko diotela emakida-titulua amaitu arte.
84. Xedapen indargabetzaileak indarrik gabe uzten ditu honako hauek: 359/1991 Dekretua, ekainaren 4koa, Portu Batzarrak sortzekoa; Garraio eta Herri Lan sailburuaren Agindua, 1992ko urtarrilaren 13koa, Bermeo eta Ondarroako eta Getaria eta Hondarribiko Portu Batzarren osaketa aldatzekoa; 90/2000 Dekretua, maiatzaren 23koa, Euskadiko Portu eta Itsas Gaietako Kontsulta Organoa eratzen duena; Garraio eta Herri Lan sailburuaren Agindua, 2001eko martxoaren 27koa, Euskadiko Portu eta Itsas Gaietako Kontsulta Organoaren konposizioa aldatzen duena. Amaierako klausula gisa ezartzen du indarrik gabe geratzen direla lege honetan ezarritakoaren aurka dauden maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.
85. Azken xedapenetatik lehenengoak aldatzen du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasei eta Prezio Publikoei buruzko Legearen Testu Bategina; testu hori irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen.
86. Azken xedapenetatik bigarrenak legearen aurka dauden arauak indargabetzen ditu, hain zuzen ere, honako hauek: 236/1986 Dekretua, urriaren 21ekoa, Portuko Lanei buruzko araudia onartzen duena; 248/1998 Dekretua, irailaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta honen erakunde autonomoen tasa eta prezio publikoen kudeaketaren zenbait alderdi arautzen dituena; Garraio eta Herri Laneko sailburuaren Agindua, 2004ko apirilaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren portuetan eta portu-instalazioetan profesional ez diren aisia-ontzien titularrei amarralekuak erabiltzeko aldi baterako baimenak emateko prozedura arautzen duena; Garraio eta Herri Lan sailburuaren Agindua, 2006ko irailaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren portuetako zerbitzu-guneetan ibilgailuak aparkatzeko portu-zerbitzua arautzeko dena.
87. Azken xedapenetatik hirugarrenak ezartzen du araua indarrean egongo dela EHAA-n argitaratu eta hiru hilabetera.

BATZORDEAREN PARTE-HARTZEA

88. Irizpen hau Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen artikuluekin bat ematen da. Lege horren arabera, batzordeari iritzia eskatu behar zaio lege-aurreproiektuei buruz, haien edukia eta gaia edozein izanda ere, jasotzen diren salbuespenetako batean ez badaude (kasu honetan ez da halakorik gertatzen).



OHARRAK

I EGITEKO PROZEDURA.

89. Batzordeak adierazi izan du (39/1999, 84/2003 eta 213/2011 irizpenak, besteak beste) lege-aurreproiektuak egiteko prozedura aztertzean honako hau kontuan hartu behar dela: "legegileak ez du Konstituzioa exekututzen, baizik eta zuzenbidea askatasunean sortzen, Konstituzioak ematen dion esparruan; erregelamenduak egiteko ahala, aldiz, «Konstituzioaren eta legeen arabera» betetzen du (EKren 97. art.)" (besteak beste, 209/1987 KAE, abenduaren 22koa)." Beraz, Espainiako Konstituzioak, Euskal Herriko Autonomia Estatutuak edo, gure ordenamenduan salbuespena bada ere, lege organikoek izapide espezifikoren bat aurreikusten ez badute, azterketa hori funtsezko tresna da erregulazioa arrazoizkoa den aztertzeko, hau da, nahi dituen helburuak lortzeko balio duen ala ez (proposatutako eduki zehatzarekin).
90. Arau-ekimenekin duen funtsezko desberdintasun horrek, axola zaigun gaian, derrigorrezko malgutasuna sartzan du batzordea bezalako organo aholkulari batek lege-aurreproiektuak egiteko prozeduren azterketan; izan ere, irizpenaren helburua da arauak egokiak diren ala ez zehazten laguntzea, alegia, arrazoizkoak diren ala ez. Arrazoizkoa izateak esan nahi du erabilgarria dela helburuak lortzeko, eta erregulazioaren zuzentasunari begira ere lagungarria dela, hau da, arautu nahi den eta beraz, positiboki aldatu nahi den errealitateari egokitzeko. Nolanahi ere, organo aholku-emaeleak parte hartzen badu ere, aurreproiektua hobetzeko oharrak egin daitezke, kontsulta egin duen organoarekin batera elkarlanean aritzeko asmoz. Dena den, berriz diogu, lege-aurreproiektua denez, ezin da ahaztu elaborazio prozeduraren emaitza ezin daitekeela sartu testuaren balorazio juridikoaren eremuan, eta, ildo horretatik, ezin izango lizkioke eragozpenak jarri amaierako legearen konstituzionaltasunari.
91. Ondorio horietarako, beraz, badugu erreferentzia-tresna garrantzizko bat; hots, abenduaren 22ko 8/2003 Legea, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzkoa (aurrerantzean, XOEPL), zeinak, inguruabar horiek ahaztu gabe, Jaurlaritzaren jarduera bideratu nahi izan baitu, Jaurlaritza, lege-proiektuak idazterakoan, xedapen orokorrak egiteko metodologia berbera erabiltzen saia dadin. Hala, zioen azalpenean esaten duenez, oso ekarpen ona egiten da legegintza-ahalmena duenaren lana errazteko, proiektu hobeto oinarrituak eta antolatutak, teknika juridiko txukunago eta xede dituen helburuak lortzeko egokiagoa dutenak aurkezten zaizkiolako, eztabaidatu eta erabaki dezan.
92. Aipatutako irismen eta helburuarekin ekingo diogu espedientea aztertzeari, espedientea egiteko prozedura eta XOEPLk arautzen duena alderatuz.



93. XOEPLren 5. artikuluan aurrez ikusten den hasteko agindua eman da, xedapen proiektua idatzi da XOEPLren 6. artikuluan ezartzen dena betez, eta onesteko agindua eman da XOEPLren 7.1 artikulua arabera.
94. Proiektuaren justifikazio txostena idatzi da.
95. Kontsulta egiten duen sailaren aholkularitza juridikoak jakinarazi du, eta arauaren oinarri objektiboa aztertu da, baita ere zuzenbidearekin bat datorren ala ez eta arau teknikoetako jarraibideak betetzen dituen ala ez (XOEPLren 7.3 artikulua).
96. Proiektua jendaurrean jarri da eta Euskadiko Portu eta Itsas Gaietako Kontsulta Organoak era jakinarazi du, XOEPLren 8.1 artikuluaekin bat.
97. Espedientearen agirietan jasota ez badago ere, prozedura hasteko aginduan aurreikusten da Euskadiko Portu eta Itsas Gaietako Kontsulta Organoan ordezkatuta dauden sektoreei entzutea, XOEPLren 8.1 artikuluaekin bat, hain zuzen ere, honako hauei: arrantza arloko eskumena duen saila; EUDEL; Nautika eta Itsasontzi-makineria Goi Eskola Teknikoa ITSASMENDIKOI; ADIME; Ondarroako alturako arrantzako ekoizleen antolakundea (OPPAO); arrantza-produktuen salerosleak; kirol itsasontzien erabiltzaileak; klub nautikoak; uretako jardueren klubak; portuetan ordezkaritza zabalena duten sindikatuak; Merkataritza-ontzietako ofizialen elkargoak; euskal ganberak; euskal ontzi ustiatzaileen elkarteak; Nautikako eta arrantzako titulatuak elkarteak; ontziolak; Merkataritza-ontzien Zuzendaritza Nagusia; Bilbo eta Pasaiaiko portu-agintaritzak; portuetako kabo-zaintzaileak; Euskal Herriko Bide, Kanal eta Portuetako Ingeniarien Elkargo Ofiziala; Euskal Herriko Obra Publikoetako Ingeniari Teknikoen Elkargo Ofiziala; Bermeoko enpresa kontsignatarioak eta estibatzaileak.
98. Aginduak aurreikusten du entzunaldia ematea Ingurumen Ministerioko Kosta eta Itsasoaren Iraunkortasuneko Zuzendaritza Orokorriari.
99. Honako hauek alegazioak egin dituzte: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritza; Herri Administrazio eta Justizia Saila; Ea, Orio, Mutriku, Getaria, Deba, Ondarroa, Bermeo eta Plentzia udalerrietako udalak; LAB, UGT eta ELA sindikatuak; Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Garraio Azpiegituren Zuzendaritza; Gipuzkoako portuetako lurralde zerbitzua; Bilboko Itsas Kapitaintza; ASOTRAVA elkarteak; Euskal Herriko Itsas Foroa; Euskal Herriko Bide, Kanal eta Portuetako Ingeniarien Elkargo Ofiziala; FECOPE; Bilbao Port; Lehiaren Euskal Agintaritza; EUDEL; MARBECO; Lehendakaritza Sailak, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak eta Osasun Sailak adierazi dute ez dutela alegaziorik egingo.
100. Hori guztia dela eta, XOEPLren 8. artikuluan xedatutakoa bete dela iritzi da; artikulua horrek eduki zehatza ematen dio Konstituzioaren 105.a) artikulua herritarrei



aintzatesten dien eskubideari. Halaber, proiektua egiteko prozedura sustatu duen Garraioaren Azpiegituren Zuzendaritzak proposamenen balorazio espezifikoa egin du, eta txosten batean jasotzen da zein proposamen onetsi diren eta zein baztertu diren, horretarako arrazoiak azalduta, XOEPLren 10.2 artikularekin bat, eta horren ondorioz, dagozkion aldaketak egin zaizkio proiektuaren testuari.

101. XOEPLren 10.3 artikulua aurreikusten duen txosten ekonomikoa idatzi da, eta KAIK erakundearen lau urteko plan ekonomikoa jaso da espedientean.
102. Araua beste administrazio publiko batzuetan aplikatu eta horren ondoriozko gastuaren ebaluazioari dagokionez, bai partikularrentzat bai ekonomiarentzat, txostenaren arabera gaur egungo egoeran ez da gorabehera edo kostu osagarririk aurreikusten, zehatzeko ahalaren ondoriozkoak izan ezik.
103. Jasota geratu da genero-eraginaren gaineko aldez aurreko ebaluazioa egin dela, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko /2005 Legearen (aurrerantzean, EGL) 19. artikulua hala eskatzen baitu, eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak EGLren 21. artikuluan adierazten den txostena egin du; txosten horretan beharrezkotzat jo diren proposamenak egiaztatu eta egin dira eta beraz, esan daiteke EGLk ezarri duen izapidea bete dela.
104. Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren Legearen 11. artikuluan xedatutakoarekin bat, espedientean honako derrigorrezko txosten eta irizpen hauek jasotzen dira: Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren txostena, Zerga Administrazioaren Zuzendaritzaren txostena, Administrazio Kontratazioaren Aholkularitza Batzordearen txostena, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren txostena, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen txostena, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena eta Euskadiko Portu eta Itsas Gaietako Kontsulta Organoaren bileraren akta.
105. Jakinarazten da ez dela egin Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikuluan aurreikusitako enpresako eragin-txostena.
106. Gogorarazi behar da Gobernu Batzordeak, 2013ko maiatzaren 14an eginiko bileran, legearen, legegintzako dekretuaren, dekretuaren edo aginduaren forma duten xedapen orokorrak elebidun egiteko neurriak onesten dituen Erabakia onetsi zuela; ekimenak izapidetzen dituzten organoek jarraitu beharreko instrukzioak dira.

II ESKUMENEN BANAKETA ETA ARAU-ESPARRUA

107. Batzorde honen 141/2008 eta 69/2012 irizpenetan adierazten zen bezala, aurreproiektua, funtsean, EAeri portuen inguruan dagozkion eskumenean oinarritzen



da; eskumen hori eskusiboa da, Autonomia Estatutuaren 10.32. artikuluan ezarritakoa kontuan hartuta. Konstituzioaren 149.1.20. artikuluan ezarritakoa gorabehera. Alegia, merkataritzako ontzidia eta interes orokorreko portuak salbu.

108. Proiektua Euskadiko Autonomia Estatutuaren artikulua berak jasotzen duen itsas garraioari buruzko eskumenean ere oinarritzen da.
109. Maiatzaren 14ko 2380/1982 Errege Dekretuaren bidez, estatutik EAera besterendu zen erkidegoan zeuden portuen kudeaketa, Pasaiakoa eta Bilbokoa izan ezik, interes orokorreko portutzat hartzen baitziren.
110. Duela denbora gutxiago, ekainaren 24ko 900/2011 Errege Dekretuaren bidez, estatutik EAera eskuordetu ziren EAeko puntuen artean egin beharreko itsas garraioko zereginak eta zerbitzuak.
111. Merkataritza-jarduerak egiten dituzten portuak direla eta –Espainiako Konstituzioaren 148.1.6. artikuluan ezarritakoaren arabera autonomia-erkidegoek beren gain har ditzaketan eskumenetatik kanpo egongo liratekeenak–, Estatuko Portuei eta Merkataritzako Ontzidiei buruzko azaroaren 24ko 27/1992 Legeak (aurrerantzean, EPMO) 3.5. artikuluan xedatu zuen autonomia-erkidegoaren eskumenekoak diren portuetan merkataritza-jarduketak egiteko Herri Lan eta Garraio, Ekonomia eta Ogasun, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura, Osasun eta Kontsumo eta Lan eta Gizarte Segurantzaren ministroen aldeko txostena behar zela; beraz, itsas trafikoari eta itsasketa-segurtasunari buruz ari da eta, hala badagokio, aduanetako, osasuneko eta kanpo-merkataritzako kontrol egokienez.
112. Estatuko Portuen eta Merkataritzako Ontzidiei buruzko Legearen Testu Bateginak, 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitakoak, aurreikuspen bera jasotzen du 3.5. artikuluan.
113. Konstituzio Auzitegiaren otsailaren 19ko 40/1998 Epaia, EPMOren aurka jarritako konstituzio-kontrakotasuneko errekurso batzuk ebatzi zituena, funtsezkoa da estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean portuen inguruko eskumenen banaketa ulertzeko.
114. Aipatutako epaiak ulertzen du aztergai dugun arloan konstituzioaren arabeko eskumenen banaketarekin bat datorrela EPMOren 5. artikulua (gaur egun, Estatuko Portuen eta Merkataritzako Ontzidiei buruzko Legearen Testu Bateginaren 4. artikulua) definitzen duen interes orokorreko kontzeptua. Horren arabera, klase horretako portuak dira, honako gertakariaren bat aplikatzen zaielako: a) horietan nazioarteko itsasoko merkataritza-jarduerak egitea; b) merkataritzako eragin-guneak eragin berezia izatea autonomia-erkidego batean baino gehiagotan; c) ekonomia



nazionalerako garrantzi estrategikoa duten industria edo establezimenduetarako baliagarri izatea; d) urteko bolumena edo itsasoko merkataritza-jardueren ezaugarriek nahiko maila garrantzitsuak lortzea edo estatuko jarduera ekonomikoaren funtsezko beharrei erantzutea; e) baldintza tekniko edo geografiko bereziak direla eta, itsasoko trafikoaren segurtasunerako ezinbesteko elementu izatea, batez ere lurralde uhartetarretarako.

115. Konstituzio Auzitegiak zera dio: "nabaria da nazioarteko itsas merkataritza-jarduerari buruzko erreferentziak (a letra) eta merkataritza-jardueren bolumenari eta ezaugarriari buruzkoak edo estatuko jarduera ekonomiko orokorraren funtsezko beharrekiko erlazioari buruzkoak (d letra) portu batek interes orokortzat jotzeko izan ditzakeen baldintzen barruan mugitzen direla. Izan ere, lehenengo eta behin, merkataritza-jarduerak betetzen dituzten portuak dira eta, bigarrenik, autonomia-erkidego jakin batek izan dezakeen interesa gaindi dezaketen jarduerak".
116. Era berean, eskumenen konstituzio-banaketaekin bat datorrela jotzen du aipatutako EPMOren 3.6. artikuluan jasotako arauketa. Horren arabera: "Estatuko Administrazioaren mendeko merkataritza-portuek beren kudeaketaren unitatean sartuko dituzte arrantzarako espazioak eta kaiak, bai eta beren zerbitzugunearen barruan dauden itsasketa- eta kirol-erabileretarako espazioak ere"; izan ere, Auzitegiak dionez: "portuen gaineko eskumena, aurretik esan dugun bezala (77/1984 KAE), portuko errealitate fisikora eta bertan garatzen den portu-jarduerara hedatzen da, Konstituzioak ez baitu eskumenik esleitzen portuetako gune jakin batzuen gainean, ez eta portuko zenbait jarduera-motaren gainean ere, baizik eta portuaren beraren gainean".
117. Hala ere, abenduaren 26ko 62/1997 Legearen bidez eginiko EPMOren aldaketak hamazazpigarren xedapen gehigarria gehitu zuen. Hauxe dio, hitzez hitz: "Arrantzarako espazioak eta itsasketa- eta kirol-erabilerarako direnak, Lege honen 3. artikulua 6. idatz-zatiak aipatzen dituenak, interes orokorreko portuen zerbitzugunetik bereizita egon ahalko dira, betiere portu-azpiegitura independenteak, lurreko eta itsasoko espazio bereziak badituzte, portuko zerbitzugunea banatzen edo eragozten ez badute eta, beraz, haren ustiapenean eraginik ez badute, gune horietarako portu-espazioak erabiltzeko planean aurreikusitako erabilera alternatiborik ez badago, bereizketak interes orokorreko portuen kudeaketan interferentziarik eragin ezin duela egiaztatzen bada eta leheneratzea bermatzen bada, bereizketa hori eragiten duten kausak eta gertakariak aldatuz gero. Bereizketa egiteko Estatuko Portua erakunde publikoaren aldeko txostena beharko da, eta Gobernuak onetsiko du, Sustapen Ministerioak proposatutako Errege Dekretuaren bidez. Bereizketa adostean, portuko zerbitzugunea aldatuko da, Lege honen 15. artikulua xedatutakoarekin bat".
118. Portuen eta Merkataritzako Ontzidiaren Legearen Testu Bateginak aurreikuspen bera jasotzen du 3. artikuluko 6. paragrafoan.



119. Estatuak itsasoko eta lurreko jabari publikoaren gainean duen eskumena dela eta, autonomia-erkidegoaren eskumena baldintzatzen duena portuei dagokienez, Estatuko Portuei eta Merkataritzako Ontzidiei buruzko Legearen Testu Bateginaren 5. artikulua xedatzen du portuen inguruan autonomia-erkidegoek dituzten eskumenak baliatzeko beharrezko dituzten itsasoko eta lurreko jabari publikoko espazioak adskribatu beharko dituela Estatuko Administrazioak. Halaber xedatzen du, autonomia-erkidegoaren eskumenekoak diren portuen zerbitzugunea handitzeko edo bere eskumeneko portu berriak eraikitzeko, Herri Lan eta Garraio Ministerioaren aldeko txostena behar dela, eta hura ez izatea dagokion proiektuaren onespeneraren baliogabetasuna dakarrela.
120. Autonomia-erkidegoak portuaren gainean duen eskumena estatuak merkataritzako ontzidiaren gainean duen eskumenak mugatzen du; eskumen hori Estatuko Portuei eta Merkataritzako Ontzidiei buruzko Legearen Testu Bateginaren 6.1. artikuluan jasotzen da eta, bertan, itsasketaren eta gizakiaren itsas bizitzaren segurtasunari buruzkoak eta itsasoko salbamenduari, ontzietatik, plataforma finkoetatik eta Espainiaren subiranotasunaren, eskubide subiranoen edo jurisdikzioaren mendeko guneetan dauden uretan dauden beste instalazio batzuetatik eragindako kutsaduraren prebentzioari eta itsas ingurumenaren babesari eta trafikoaren eta itsas komunikazioen antolamenduari buruzkoak.
121. Autonomia-erkidegoen eskumeneko portuetako zaborrak eta dragatzeak direla eta, Estatuko Portuei eta Merkataritzako Ontzidiei buruzko Legearen Testu Bateginaren 5.4. artikulua ezartzen du haiei dagozkia, Kostaldei buruzko uztailaren 28ko 22/1988 Legeak ezarritakoarekin bat, lege honen 64. artikuluan ezartzen diren betekizunak. Era berean, autonomia-erkidegoei dagokie estatuaren legeria gauzatzea barneko eta jurisdikziopeko uretako zaborren gainean, baldin eta hala hartu badute beren gain dagozkien autonomia-estatutuetan, non zehatzeko ahala barne dagoela ulertzen den.
122. Itsasoko salbamendua dela eta, Estatuko Portuei eta Merkataritzako Ontzidiei buruzko Legearen Testu Bateginaren 264.5. artikuluan xedatzen da autonomia-estatutuetan berezko eskumen gisa beren gain hartu duten autonomia-erkidegoei dagozkia estatuaren legeria gauzatzea, itsasoko salbamenduaren gainean, beren kostaldeari dagozkion jurisdikziopeko uretan; bertan zehatzeko ahala barne dagoela ulertzen da.
123. Arauaren 266. artikulua itsas kapitaintzen eskumena arautzen du. Haiei ematen dizkie, oro har, honako hauei buruzko zeregin guztiak: itsasketa, itsasoko segurtasuna, itsasoko salbamendua eta Espainiaren subiranotasunaren, eskubide subiranoen edo jurisdikzioaren mendeko guneetan dauden uretako itsas ingurumenaren kutsaduraren aurkako borroka –portuen zerbitzuguneetan eragindako kutsadura-kasuetan izan ezik,



portuko agintariei baitagokie, kasu horietan lankidetzaz bereziko betebeharrak izango dutela-.

124. Artikulu horrek 2. idatz-zatia xedatzen du autonomia-erkidegoen eskumeneko portuetan portuko administrazioak eta itsas kapitaintzak beren jarduketak koordinatuko dituztela, beren helburuak betetzeko.
125. Portuen gaia lurraldearen eta kostaldearen eta hirigintzaren antolamenduari lotuta dago, EAEn eskumen eskusibokoak direnekin, EAEn Autonomia Estatutuaren 10.31. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Alabaina, Kostalderi buruzko uztailaren 28ko 22/1998 Legearen 114. artikulua -abenduaren 30eko 53/2002 Legeak aldatu zuen- honako hau xedatzen du: "Lurraldearen eta kostaldearen antolamenduari gainera eskumenak... itsasoko eta lurreko jabari publikoaren lurreko eremua baino ez du hartuko, lurraldeko itsasoa eta barne-urak hartu barik".
126. Eskumen-eremuen mugaketari eta arau-esparruari buruzko atal hau amaitzeko, interesgarria da adieraztea portuen eremuan administrazio-kontratuak eta -emakideak duten eragin handia; bertan, estatuari dagokio oinarriko legeriaren gainera eskumen eskusiboa, Espainiako Konstituzioaren 149.1.18 artikulua xedatzen duenaren arabera.
127. Aipatutakoaren inguruan, Sektore Publikoko Kontratuari buruzko Legearen Testu Bategina onesten duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak 2. artikuluan xedatzen du zer diren sektore publikoko kontratuak, eta lege beraren mende daude, besteak beste, autonomia-erkidegoko administrazioek egiten dituzten kostubidezko kontratuak.
128. Legearen 4.1.o) artikulua xedatzen du bere aplikazio-eremutik kanpo daudela jabari publikoko ondasunei buruzko baimenak eta emakidak eta 7. artikuluan definitutako kontratuetan -obra publikoak emateko kontratua- bestelako ondare-ondasunen ustiapen-kontratuak, legeria bereziaren bidez arautuko direnak, legearen aginduak aplikagarriak direla berariaz aitortzen diren kasuetan izan ezik.
129. Obra publikoen emakida-kontratuak ez du kontratistaren prestazio gisa aurreikusten obra publikoaren ustiapen hutsa; beraz, kasu horietan -ustiapen hutseko kasuetan-, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratura edo jabari publikoko erabileraren baimenak eta emakidetara jo behar dira. Oinarriko arau-esparrua, EAEn Administrazioari dagokionez, Euskadiko Ondareari buruzko Legearen Testu Bategina da, azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsia.
130. Eta proiektuarengan eragina duen arau-esparruarekin amaitzeko, zehapen-arloa aipatu behar dugu; haren legezko erreferentzia da Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren zehatzeko ahalari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legea.



III AURREPROIEKTUAREN EDUKIAREN AZTERKETA

131. Batzorde honek portuei buruzko bi lege-aurreproiekturen txostenak eman ditu, dagoeneko. Lehenengo kontsulta 76/2008 zenbakiarekin erregistratu zen, eta 141/2008 irizpena ekarri zuen; bigarren kontsulta, 51/2012 zenbakiarekin, eta 69/2012 irizpena ekarri zuen.
132. Kontsulta honen helburu den proiektua Batzordearen irizpena jaso zuten beste bien antzekoa da; hura egiteko, azalpen-memoriak jasotzen duen bezala, aurreko legegintzaldietan eginiko lanak izan ziren abiapuntu.
133. Batzordearen txostena jaso dutenen aldean, proiektuak dituen desberdintasunak teknikoak dira, eta nabarmenenak, azalpen-memoriak dakarren bezala, honako hauek dira:
 - a) Hedadura txikiagoa, izan ere, zenbait alderdiren arauketa bazter utzi da, beste arau batzuetan daudelako araututa, besteak beste, portuko jardueran eragina duten hirigintzako tresnen onespren-prozeduren arauketa, edo administrazio-kontratazioarena, edo, bestela, komenigarriago irizten delako arauketa beste araudi baterako uztea.
 - b) Testuan, portuen kudeaketarako ustez jarraitu beharreko printzipio programatikoak jasotzen dira.
 - c) Portuen sailkapena uzten da erabileraren arabera, eta portuaren kontzeptu globala hartzen da.
 - d) Portuko espazioak erdigunean integratuta dituzten udalerrri askotako errealitatea onartzen da.
 - e) Zuzenbide pribatuko erakunde publikoa eratzen da, portu guztiak kudeatzeko; horrela, portuko eremuan funtzioak dituen administrazio-antolaketa sinplifikatzen da.
 - f) Legearen helburu diren portuek dauzkaten dimentsio txikiak kontuan hartuta, portuko zerbitzuaren kontzeptu globala edo orokorra definitzea erabaki da; horrela, zerbitzu orokorren eta zerbitzu berezien arteko desberdintasuna baztertu da eta Administrazioari esleitu zaio zerbitzuen prestazioa; Administrazioak zuzenean edo zeharka ematen ditu zerbitzuok, lehia-araubidean, zerbitzuko ezaugarriek hala ahalbidetzen dutenean.
134. Bestalde, proiektua idaztean, funtsean, Batzorde honek aurreko aurreproiektuei buruzko irizpenetan eginiko oharrak onartu dira, bai eta kontsulta egiten duen sail



bereko aholkularitza juridikoak eta espedientean esku hartu duten beste organismo batzuek egindakoak ere.

135. Aurreproiektuaren edukia EAERI dagokion eskumen-eremuan inskribatzen da; beraz, zuzenbidearen arabera hartu behar da aintzat. Hala ere, Batzordeak intereskotzat jotzen du honako ohar hauek egitea.
136. **KAIK** zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa **sortzeari** dagokionez –proiektuko III. kapitulua, 21. artikulutik 28ra–, interesgarria da ohartaraztea Euskadiko Ogasun Orokorraren Printzipio Ordenatzaileen Legearen Testu Bateginaren 15. artikulua (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua) ezartzen duela erakunde horiei esleitzen zaizkien jarduerak, funtsean, zuzenbide pribatuak arautuko dituela; hori, baina, ez da gertatzen KAIK-en kasuan, 23. artikulua ematen dizkion funtzioak eta 24. artikulua betearazten dion araubide juridikoa kontuan hartuta, eta horietako gehienak administrazio-zuzenbidearen mende geratzen dira.
137. Hala ere, proiektatutako araua lege-mailakoa denez, ezin da legezko konturik jarri aurka.
138. **25. artikulua** arautzen du KAIK erakundea, eta erakundearen gobernu- eta kudeaketa-organo gisa ezartzen ditu Administrazio Kontseilua eta Zuzendaritza; horien gainean esaten den bakarra da lehenengoa gobernu-organoa dela eta portuen arloan eskumena duen saileko kontseilaria izango dela bertako buru, Zuzendaritza kudeaketa-organoa dela, eta bertako titularra Gobernuak izendatuko duela, kontseilariak berak proposatuta.
139. Aurreko arauak ez dator bat Sektore Publikoko Antolamenduari eta Funtzionamenduari buruzko Lege aurreproiektuan xedatutakoarekin, alegia, oraintsu Batzorde honen txostena jaso duenarekin (128/2015 Irizpena); bertan, 45.2. artikulua xedatzen du erakundea eratzeko lege-proiektuak, behintzat, honako eduki hau izango duela: bere gobernu-organoak, pertsona bakarreko eta kide anitzeko izaera adierazita; eraketa; kideak izendatzeko prozedura eta horietako bakoitzari dagozkion egitekoen banaketa; egitura organikoaren eta administratiboaren oinarriak eta erakundearen egiteko exekutiboak, esleitzen zaizkion egitekoak zehaztuta, bere egintzen edo ebazpenen balio juridikoa adierazita eta, hala badagokio, horietako zeinek amaitzen duen administrazio-bidea zehaztuta, bai eta sozietatearen iraungipen- eta likidazio-prozedura ere.
140. Hala ere, azken alderdi horretan Euskadiko Ogasun Orokorraren Printzipio Ordenatzaileen indarreko Legean xedatutakoa betetzen du.



141. **44.2. artikulua**, portuen eta itsas kontuen ikuskaritza eta kontrola egiteko zereginak esleituta dituzten portuko Administrazioari atxikitako langileak direla eta, xedatzen du agintaritzako agentearen izaera izango dutela eta “aipatutako langileek egiaztatutako gertakariak frogabalia izango dutela”.
142. Aurreko aurreikuspena Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 137.3. artikuluan jasotzen da; artikulua horrek xedatzen du agintari-izaera aitortuta duten funtzionarioek egiaztatutako eta beharrezko legezko eskakizunak kontuan hartuta dokumentu publikoan formalizatzen diren gertakariak frogabalia izango dutela. Hala ere, eskubide edo interes horien defentsan, administratuek beraiek frogak adierazi edo aurkeztu ahalko dituzte.
143. Bestalde, artikulua bereko lehen paragrafoak ezartzen du zehapen-prozedurek administrazio-erantzukizunik ezaren presuntzioa babestuko dutela, kontrakoa frogatu arte.
144. Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 137.3. artikulua funtzionarioek egiaztatutako gertakariari ematen dien frogabaliari buruzko eta Espainiako Konstituzioaren 2.4. artikuluan bermatutako errugabetasun-presuntzioari buruzko aurreikuspenen arteko ustezko aurkakotasuna Konstituzio Auzitegiak ebatzi du, besteak beste, apirilaren 26ko 76/1990 epaian. Honako arrazoibide hauek hartzen dira gogoan:

“... ez da eragozpenik ikuskaritzako aktak eta eginbideak frogabaliabidetzat jotzeko, Administrazio Prozedurari buruzko Legearen 88.1. artikulua eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 74. artikulua xedatutakoaren ondorioetarako; artikulua horiek orokorrean onartutakoetara eta prozesu zibil arruntaren arauetara jotzen dute. Bestalde, Kode Zibilaren 1216. artikulua eta Prozedura Zibilaren Legearen 696 3. artikulua arabera, ez dago oztoporik legez dokumentu publiko gisa kalifikatzeko, baldin eta funtzionario publikoek esleituta dituzten zereginetan baimentzen badituzte, eta legez ezarritako irmotasunez edo formalitateaz.

Aztertu beharreko bigarren alderdia da zehatutako legezko arauak Zerga Ikuskaritzaren akteari eta eginbideei ematen dien eraginkortasuna, eta, zehatzago esateko, «formalizazioaren arrazoi diren gertakariari dagokienez, kontrakoa egiaztatu ezean», frogaberaginkortasun hura inozentzia-presuntzioarekin kontrajarrita dagoen; izan ere, horrek, esan den bezala, eruduntasuna –autorearen eta gaitzetsitako



jarreraren arteko lotura psikologiko gisa ulertuta- ez ezik, oso modu berezian jasotzen du egotzitako gertakarien errealitatea ere bai.

A *limine* baztertu behar da ZLOren 145.3. artikulua Administrazioa, inozentzia-presuntzioaren oinarrizko eskubidearen kontra, zehatutako gertakariei dagokien frogara orotik dispentsatzen duen legezko presuntzioa ezarri izana; izan ere, aginduaren oinarrian dago Zuzenbidean baliozkoa den frogara-baliabide bat. Nabaria da, halaber, zehatutako arauak ez duela *iuris et de iure* ikuskaritzaren dokumentuen egiazkotasun- edo benetakotasun-presuntzioa ezartzen (hori bateraezina izango litzateke konstituzioko inozentzia-presuntzioarekin); izan ere berariaz onartzen du kontrakoaren egiaztapena. Kontra egindako agindua Zerga Ikuskaritzaren akta eta eginbideetan jasotzen diren gertakarien gaineko lehen frogara-baliabidea da; haren balioa edo eraginkortasuna frogaren balioespen librearen printzipioaren arabera neurtu behar da. Horri gehitu behar zaio frogara-balio hori funtzionarioak zuzenean egiaztatutako gertakariei buruzkoa baino ezin dela izan, eta bere irismenetik kanpo geratzen dira kalifikazio juridikoak, balio-judizioak edo ikuskatzaileek akta eta eginbideetan jasotzen dituzten iritzi hutsak".

145. Horrenbestez ulertu behar da ikuskaritzako aktak, legeek horien gainean ezartzen dituzten aurreikuspenak edonolakoak direla ere, balioespen libreko frogara-baliabideak direla eta, jakina, beste ebidentzia batzuek hutsaldu ditzaketela. Beraz, ez du ondorio praktikorik 44.2. artikuluan jasotako aurreikuspenak.
146. Hala ere, horrek ez du gutxitzen zerbitzuen kontrolaren eta ikuskaritzaren arduradun diren funtzionarioen akta edo jarduketan balioa; izan ere, horien profesionaltasuna eta interes publikoa helburu duen funtzionarioen jardura da dokumentuei balioa ematen diena. Alabaina, horren harira, ez da ahaztu behar Espainiako Konstituzioak, 103. artikuluan, objektibotasun-presuntzioa eta legearen mendean jartzea ezartzen dituela, eta hori presente eduki beharko da, prozedura administratiboa edo judiziala ebazteko orduan.
147. **55.2. artikulua** xedatzen du araua hausten duenak aurreko paragrafoan ezarritako eginbeharra betetzen ez duenean edo erabat betetzen ez duenean, hertsatze-isunak ipini ahal izango zaizkiola, eginbehar hori bete dezan.
148. Xedapenaren edukari dagokionez, esan behar da Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 99.1. artikulua arautzen duela, kasu batzuetan, legeek hala baimentzen badute eta horiek ezartzen dituzten forman eta zenbatekoan, administrazio publikoek hertsatze-isunak jarri



ahalko dituztela, zenbait egintza gauzatu ahal izateko, agindutakoa betetzeko nahikoa diren denbora-tarteez errepikatuta.

149. Bi aginduak erkatuta ikusten da proiektatutako xedapenak ez duela arautzen isunak ezartzeko modua —maiztasuna eta gehieneko kopurua—, ez eta horien zenbatekoa ere; beraz, araudiaren hutsunea ezin duenez erregelamenduak bete, xedapen hori ezingo da aplikatu.
150. **49.h) artikulua** arau-hauste larritzat arautzen du arau-hauste arinetan berrerortzea, eta xedatzen du berrerortzetzat hartuko dela urtebetean arau-hauste bi edo gehiago egitea, administrazio-bidean ebazpen irmoaren bidez hala aitortu bada.
151. Berrerortzea dela eta, arau-hauste mota aldatzen duen elementu gisa, argi ezarri behar da, gertakari bat birritan ez zehatzeko, bigarren arau-haustea, hasieran arintzat tipifikatu dena, larritzat joko dela, berrerortzea gertatzen denean. Hala ohartarazi du Batzorde honek, besteak beste, 191/2008 (101. paragrafotik 103ra) eta 192/2008 (168. paragrafotik 170era) Irizpenetan.
152. **51.2.c) artikulua** berrerortzea zehapenak larriagotzen dituen gertakari gisa ezartzen du. Horren harira, argi adierazi behar da gertakari hori larrigarritzat aplika daitekeela, arau-hauste mota larriagotzeko kontuan izan denean izan ezik; izan ere, horrela, ezin da kontuan hartu mota eta, aldi berean, zehapena larriagotzeko.
153. **Hirugarren xedapen gehigarriak** ezartzen du Jaurlaritzak aginduko duela KAIK erakunde publikoaren benetako sorrera eta haren jardunaren hasiera, erakundearen estatutu sozialetan arauz ezarritako egunean.
154. Horren harira esan behar da legeak erakundea 21. artikuluan eratzen badu, gero ezin duela ezarri benetako sorrera Jaurlaritzak erabakiko duenik. Beraz, xedapenetik benetako sorrerari buruzkoa kendu eta jardueren hasiera Jaurlaritzak erabakiko duela ezarri beharko da.
155. **Xedapen indargabetzaileak** direla eta, komenigarria izango litzateke hausnartzea ez ote den araudi-hutsunea sortzen proiektatutako araua indarrean sartzearen eta xedapen indargabetzaileetan araututakoa jasotzen duen araudia argitaratzearen artean, eta horrek ez ote dizkion portuko jardueraren funtzionamenduari ondorio negatiboak ekartzen. Esaterako, hausnartu portuko jardueren Erregelamendua onesten duen urriaren 21eko 236/1986 Dekretuaren ondorio indargabetzaileen inguruan.



IV ARAUGINTZA-TEKNIKA

156. Araugintza-teknika dela eta, Batzordeak uste du aurreproiektua, oro har, lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak egiteko 1993ko martxoaren 23ko Gobernu Kontseiluaren Erabakiaren bidez onetsitako Gidalerroetara egokitzen dela, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko Legearen hirugarren xedapen gehigarriaren arabera aplikagarriak direnetara.
157. Hala ere, interesgarria da horren gaineko ohar hauek egitea.
158. 2.1. artikuluan 3.1. artikuluari egiten zaio erreferentzia, baina 3 a) artikuluari egin behar zaio.
159. 4. artikulua xedatzen du, portuen inguruan erakunde- eta gizarte-partaidetzari bide emateko erregelamenduz sortzen diren beste kontsulta- eta partaidetza-organo batzuen artean, Portuko Udal Batzordea sartuko dela.
160. Xedapen hori, organoaren zeregin berezia edo helburua eta eraketa ezartzen ez dituen, ez da oso interesgarria; izan ere, eraketa erregelamenduaren bidez egin liteke.
161. 18.2. artikulua zera ezartzen du: " Ontzien edo itsasontzien zabor eta hondakinak Portuko Administrazioak onartutako Hondakinak jasotzeko Plana betez hustu beharko dira.
162. Ideia hobeto egongo litzateke honela adierazita: "... Hondakinak jasotzeko Planak ezarri edo xedatu bezala hustu beharko dira...".
163. 38.1. artikulua zera xedatzen du: "Portuko Administrazioak emakidaren edo baimenaren iraugipena deklaratu dezake, arauz ezarritako prozeduraren bitartez, titularrari entzun ondoren eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak irizpena eman ondoren —araudi erregulatzailaren arabera nahitaezkoa bada—...".
164. "araudi erregulatzaila"ren erreferentziak Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3. artikuluen i) eta j) idatz-zatietara garamatza; artikuluek, aldi berean, administrazio publikoen kontratazioari buruzko eta toki-araubideko legeriara eta administrazio-emakidei buruzko araudira garamatza. Beraz, zuzenagoa litzateke hau bakarrik esatea: "Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak irizpena eman ondoren, hura beharrezkoa denean".
165. 44. artikulua portuen eta itsas gaien arloan ikuskaritzako eta kontroleko ahalari egiten dio erreferentzia. Ahal horiek direla eta, Batzordeak uste du komenigarria litzatekeela zaintzakoa sartzea, ikuskaritzaren eta kontrolaren esanahi berezia izan dezakeena.



166. Komenigarria izango litzateke 48.i) artikuluan argi islatzea isuritako substantziak, materialak edo hondakinak “ez-kutsagarriak” izatea, 49.e) eta 50.b) artikuluetan zehaztutako isuriei buruzko arau-hausteekin koherentzian egoteko.
167. Proiektuak bi xedapen indargabetzaile jasotzen ditu, eta bigarrena azken xedapenetako bigarrena bezala jaso da.
168. Ez du zentzurik eduki indargabetzailea duten bi xedapen ezartzeak; gainera, zeregin hori dutenek xedapen indargabetzailearen izendapena dute, ez azken xedapenena, aipatutako jarraibideen arabera.

ONDORIOAK

Batzordeak emandako irizpenaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuei eta Itsas Garraioari buruzko Legearen aurreproiektua, behin irizpen honen mamian egindako oharrak aintzakotzat hartutakoan, Jaurlaritzaren Kontseiluari aurkeztu ahal izango zaio, onespena eman dezan.

Eta hala ziurtatzen dugu, Gasteizen, 2015eko urriaren 9an, jakin eta kontuan har dadin. Era berean, azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 30.2 artikulua xedatzen duen betebeharra gogorarazi nahi dugu: azkenean onartzen den xedapena edo ebazpena Batzordeari jakinarazi behar zaio, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren antolamendu eta funtzionamenduaren Erregelamendua onartzen duen irailaren 12ko 167/2006 Dekretuaren 34. artikulua xedatzen duen moduan eta epean.

O. E.

Jesús María Alonso Quilchano,

Idazkaria

Sabino Torre Díez,

Lehendakaria